

aek  
23.korrika

ALBISTEAK

2023/12/15



B1

MAILA

**Badator 23. KORRIKA!**

**Harrotasunez! Klean da KORRIKA-KANTA!**

aek  
23.korrika

**HARRO  
HERRI**



Irundik Baionarat  
2024ko martxoaren 14tik 24ra

## Kalean da 23. KORRIKA-kanta: *Harro herri*

► Hemen behean, kantan parte hartu duten artista batzuk ezagutuko dituzu:

### Mursego (Maite Arroita Jauregi Aranburu; Eibar, 1977)

Folk- eta pop-abelaria da, eta 23. KORRIKA-kantaren sortzaile eta zuzendari<sup>1</sup> artistikoa; .... (1), ahotsetako bat<sup>2</sup> ere jarri du. Hainbat<sup>3</sup> talde eta bakarlariren<sup>4</sup> musikari izan ondoren (Anari, Lisabö, Xabier Montoia, Ama Say...), .... (2) bakarkako lehenengo diskoa .... (3) zuen. Bere diskoetan ahotsa, txeloa, pianoa, ukelelea, autoharpa, xilofonoa, stylophonea, melodikoa, txirula, kalinba, erreklamuak eta perkusio txikia jotzen<sup>5</sup> ditu: musikari osoa<sup>6</sup> da! .... (4) soinu-bandak ere egiten ditu; ospetsuena<sup>7</sup> "Akelarre" filmerako egindakoa izan zen, .... (5) jatorrizko musika .... (6) Goya saria irabazi .... (7), Arantzazu Callejarekin batera<sup>8</sup>.



Irudia (AEK): kantaren aurkezpena (Mursegoko, ezkerretik bigarrena)

Beste talde eta abeslari batzuekin ere kolaboratzen du. 2017an, .... (8), Ibon .... (9) ekoiztiko % 100 Oion proiektuan kolaboratu zuen, non oiondar .... (10) parte hartu zuen.

### Kau Kori Kura (Mikel Aizpurua; Ordizia, 2015)

Pop surrealista egiten du, Ritxar Gomezekin batera. 2015ean .... (11) zen kantu bereziak<sup>9</sup> YouTubera igotzen, eta dagoeneko<sup>10</sup> hainbat disko kaleratu ditu. Abestien hitzak surrealistikak dira, hona hemen<sup>11</sup>

abesti horien izenburu<sup>12</sup> .... (12): *Errauskailua Txillidalekun, Atez-ahate, Barbie ETBn (eta non dago Ken?), Atun burusoil, Pollo-e...*

### IbonRG (Ibon Rodríguez García; Sestao, 1978)

Musikari eta kultura-eragile<sup>13</sup> euskalduna da.

.... (13) hainbat musika-tresna jotzen ditu. Bakarkako saioetan<sup>14</sup> inprobisatu egiten du: ahotsaz esperimintazioak egiten ditu, pianoa lagun. Disko-ekoizle<sup>15</sup> lanak .... (14) egiten ditu.

**Iturria:** eu.wikipedia (moldatua)

#### Hiztegitxoa:

- <sup>1</sup> zuzendari: director/a; *directeur, directrice*  
<sup>2</sup> ahotsetako bat: una de las voces; *une des voix*  
<sup>3</sup> hainbat: muchos/as; *beaucoup*  
<sup>4</sup> bakarlarari: solitario/a; *soliste*  
<sup>5</sup> jo: tocar; *jouer*  
<sup>6</sup> osoa: completo/a; *intègre*  
<sup>7</sup> ospetsu: famoso/a; *fameux*  
<sup>8</sup> ...-rekin batera: junto a...; *avec...*  
<sup>9</sup> berezi: especial; *particulier*  
<sup>10</sup> dagoeneko: ya; *déjà*  
<sup>11</sup> hona hemen: he aquí; *voici*  
<sup>12</sup> izenburu: título; *titre*  
<sup>13</sup> kultura-eragile: activista cultural; *promoteur culturel*  
<sup>14</sup> saio: sesión; *prestation*  
<sup>15</sup> ekoizle: productor/a; *producteur*

#### ► Azpimarratu forma zuzenak:



1. gainera / gainetik / halere
2. 2009n / 2009an / 2009ean
3. kaleratu / kaleratzen / kaleratuko
4. Filmetarako / Filmeko / Filmaren
5. 2021an / 2021en / 2021ean
6. onagoaren / onenaren / hobeagoaren
7. bait zuen / bait zen / baitzuen
8. esateko / esaterako / esanda
9. Rodriguezek / Rodriguez
10. askok / asko
11. hasi / hasten / hasiko
12. batzu / batzuk / batzuek
13. Ibonek / Ibon
14. ere bai / baita / ere

## Harro herri (kanta)

**Harro herri korrika**  
**Harro herri korrika**  
**Harro herri korrika**  
**Bagara!**

**Harro herri korrika**  
**Harro herri korrika**  
**Harro herri korrika**  
**Plazara!**

Harro herri  
 Hona gu .....<sup>1</sup>  
 Euskararen lagunak  
 Hats<sup>2</sup> eta .....<sup>3</sup>

Herri harro  
 Sarean (e)ta kalean  
 .....<sup>4</sup> pil-pilean  
 Tik-tak, tik-tak, tik-tok

**Mingainaz mingaina<sup>5</sup>**  
**Mintzairaz mintzaira<sup>6</sup>**  
 Lurrarekin batera  
 Jira eta bira<sup>7</sup>

**Ku kukulumuxu<sup>8</sup>**  
**Ko-ko kokoriko<sup>8</sup>**  
 Euskararen sarea  
 Ez da eroriko

**Mingainaz mingaina**  
**Mintzairaz mintzaira**  
 Hizkuntzak hiztunekin<sup>9</sup>  
 Aberasten dira

**Ku kukulumuxu**  
**Ko-ko kokoriko**  
 Algara<sup>10</sup> batean  
 Edo afoniko

**Harro herri korrika**  
**(errepika)**

Ahoa bizi-bizi  
 Prest belarriak  
 .....<sup>11</sup> heldurik  
 Lehertu ezarriak

Argazki bat ipini  
 lasterka egina  
 Bihotz, muxu, .....<sup>12</sup>  
 Nik bai eragina!

**Mingainaz mingaina...**  
**Ku kukulumuxu...**  
**Mingainaz mingaina...**  
**Ku kukulumuxu...**  
**(errepika)**

Onlineko txatean  
 Ez zirri ez mirri<sup>13</sup>  
 gorputzen .....<sup>14</sup>  
 ikimilikikirri

Esku bat nirea  
 Bestea zurea  
 .....<sup>15</sup>  
 Izan dadin<sup>16</sup> gurea

Ikasten bazabiltza  
 Egin gurekin  
 .....<sup>17</sup> ulertu arte  
 Ekin (e)ta ekin

Hizkuntzak ikastera  
 Bagoaz kanpora  
 Zergatik ez herrian  
 Euskara ahora

**Harro herri korrika**  
**(errepika bi aldiz)**

Ez badigute ematen,  
 arrazoia guri  
 Su emango diogu,  
 haien legerari



### HIZTEGITXOA:



### Lagunduko diguzu kanta eta hiztegitxoa osatzen?

- 1 ..... : euskara dutenak
- 2 HATS: arnasa, hasperen
- 3 ..... : gorputzetik botatzen dugun likido usaintsu eta gazia
- 4 ..... : bularraren azpian duguna
- 5 MINGAINAZ MINGAINA: mingaina batetik bestera
- 6 MINTZAIRAZ MINTZAIRA: hitz egiteko modutik modura
- 7 JIRA ETA BIRA: bueltaka
- 8 KUKULUMUXU, KOKORIKO (sinonimoak dira): oin puntetan ibili
- 9 HIZTUN: hitz egiten duena
- 10 ALGARA: barre handia egiten
- 11 ..... : esku batetik bestera
- 12 ..... : euskaldunon oihu ezaguna
- 13 ZIRRI-MIRRI egin: laztandu
- 14 ..... : ez hotz, ez bero
- 15 ..... : eskua eman, agurtzeko edo adostasuna adierazteko
- 16 IZAN DADIN: izateko
- 17 ..... : nik zu eta zuk ni

## ERRONKA: baietz errepikak buruz ikasi!

### FITXA TEKNIKOA:

**Zuzendari artistikoa eta musikaria:** *Mursego* (Maite Arroitauregi Aranburu).

**Parte hartu duten talde eta musikariak:** *Ibon Rg, Ibil Bedi, Kau Kori Kura, Aida Torres, Marié Bidart, Asier Ituarte.*

**Letra:** Amaia Astobiza

**Grabazioak:** Oihan Lizaso (Noisestudioa)

### Aukerak:

BIHOTZA, ELKAR, ESKUZ ESKU, EPELEAN, IRRINTZI, EUSKALDUNAK, IZERDI, EMAN BOSTEKO

**PROZEDURA:**

- ▶ Aurtengo KORRIKAz zer dakiten galdetuko diegu<sup>1</sup>.  
**Nahiago baduzu**, KORRIKAz zer dakiten jakiteko, **Kahoot bidezko txapelketa**<sup>2</sup> egin dezakete.
- ▶ Bideoa<sup>3</sup> ikusi, eta komentatu egingo dugu: zer egin zenuten zuek 22. KORRIKA-n?
- ▶ Nahi izanez gero, **KORRIKari lotutako lexikoa ikasteko jolasa** egin dezakezue (ikus 5. or.).
- ▶ Korrika-kantarik gogoratzen ote duten galdetuko dugu. Gogoratzen badute, kanta dezatela gogoratzen duten zatiren bat...
- ▶ Aurtengo kanta jada aurkeztu dela esan, eta bideoklipa<sup>4</sup> ikusiko dugu eskolan.
- ▶ Zer iruditu zaien komentatu, eta utziko diegu kantariez eta bideoklipetan agertutako pertsonaz zer dakiten esaten.
  
- ▶ Biografiak irakurri, eta hutsuneak bete beharko dituzte (3. or.).
- ▶ Talde handian zuzenduko dugu.

**ERANTZUN ZUZENAK:**

1. gainera; 2. 2009an ; 3. kaleratu; 4. Filmetarako; 5. 2021ean; 6. onenaren; 7. baitzuen; 8. esaterako; 9. Rodriguezek; 10 askok; 11. hasi ; 12. batzuk; 13 Ibonek; 14. ere.

- ▶ Kantaren letra emango diegu eta hiztegitxoaz zein kanta osatu beharko dute (4. or.).
- ▶ Horretarako, hutsuneak betetzeko tarte bat utziko diegu: banaka, lehenik; binaka, ondoren.
- ▶ Zuzentzeko, kanta<sup>4</sup> entzungo dugu berriro. Letra osoa 6. orrialdean duzue.

**ERANTZUN ZUZENAK:**

1. EUSKALDUNAK; 2. IZERDI; 4. BIHOTZA; 11. ESKUZ ESKU; 12. IRRINTZI; 14. EPELEAN; 15. EMAN BOSTEKOAK; 17. ELKAR

- ▶ Solasaldia egingo dugu: kanta gustatu zaien, zein KORRIKA-kanta gustatzen zaien gehien, zein musika-estilo duten gustuko, euskal musika entzuten ote duten, zein euskal musikari edo talde duten gogoko...
- ▶ **Oharra:** nahi izanez gero, hemen dituzue edizio guztietako KORRIKA-kantak:  
<https://www.argia.eus/albistea/korrika-abesti-guztien-bilduma>
- ▶ Erronka botako dugu: ea zeinek ikasten duen buruz aurtengo kanta! Edo errepikak!
- ▶ **Badok.eus** ezagutzen ez badute, gunea aurkezteko aprobetxa dezakegu unea.
- ▶ Musikazaleak badira, proposa dezakegu bakoitzak gustuko kantari baten aurkezpena presta dezala, Korrikakoak eredu hartuta. Gelako (**euskal**) **kanten Top10 zerrenda** egiten ere saia gintezke.
- ▶ Amaitzeko, **23. KORRIKA: HARRO HERRI Spota** ikusi eta komentatuko dugu (azpidatziak gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez daude): <https://www.youtube.com/watch?v=V1cEdW5ZyYA>
- ▶ Nahi badute, **eskolan egindakoa erreparatzeko**, etxean online ariketa ere egin dezakete (bertan, ariketa gehiago ere izango dituzte: <https://korrika.h5p.com/content/1292120977175836127>)

<sup>1</sup> **AEK zer den** azaltzeko aprobetxa dezakegu nahi izanez gero. Horretarako, esteka hau bidaliko diegu, eskolaz kanpo ikus dezaten (azpidatziak gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez daude):

[https://www.youtube.com/watch?v=3kzfLoVO3Ag&list=PLQ7B3QXOhR\\_WEVdRu9LqpiQpMQTOraI\\_S&index=2](https://www.youtube.com/watch?v=3kzfLoVO3Ag&list=PLQ7B3QXOhR_WEVdRu9LqpiQpMQTOraI_S&index=2)

<sup>2</sup> **Zer dakizu KORRIKAz? B1-C1** <https://create.kahoot.it/details/a51ff30c-36a2-44d4-b502-a0da6c7c8c30>

<sup>3</sup> Girotzeko **bideoa: "22. KORRIKA: HitzEkin, baina hitzik gabe! Mila esker, Euskal Herria!"**

[https://www.youtube.com/watch?v=c3HwYZ\\_os3o](https://www.youtube.com/watch?v=c3HwYZ_os3o)

<sup>4</sup> **HARRO HERRI (23. KORRIKAren abestia eta bideoklipa)**

<https://www.korrika.eus/eu/abestia> eta <https://www.youtube.com/watch?v=wXRJVFng4Ug>

**JARDUERA OSAGARRIA:**

- 1. JARDUERA egin eta gero, **KORRIKari lotutako lexikoa ikasteko jolasa** egin dezakezue. Horretarako, pantaila handian, **“Lexiko berria ikasten” PDFa ireki** behar duzue.

**“KORRIKari buruzko LEXIKO BERRIA IKASTEN” JOKOA****Jokoaren helburua**

Testuan agertuko den lexiko berria ikasteko, ETB1eko *Mihiluze* lehiaketa ezaguneko *Tribuaren berbak* jokoaren prozedurari jarraituko diogu. Beraz, jokoaren helburua izango da hitz guztien esanahia jarraian asmatzea.

**Jokoaren arauak**

- Ikasleak talde txikitan banatuko ditugu.
- “Lexiko berria ikasten” PDFa ordenagailuaren edo telebistaren pantailan jarriko dugu. Jarri dokumentua “aurkezpen” moduan, pantaila osoa bete dezan.
- Klik eginda, hitzak eta esanahiak agertzen diren lehenengo orrira igaroko gara, eta hasiera emango diogu jokoari. Orri horretan, pantailaren ezkerrean, hamaika hitz agertuko zaizkigu euskaraz; eskuinean, aldiz, hitz horiek gaztelaniaz eta frantsesez.
- Lehendabiziko hitza azpimarratuta agertuko zaigu. Lehenengo jokalaria esan beharko du hitz horrek zer esan nahi duen, eskuineko hitzen artean aukera eginez.
- Aukera bakarra izango dute jokalariek hitza asmatzeko. Asmatuz gero, klik eginda hurrengo orrialdera joango gara. Hortxe erantzuna ikusiko dugu, eta hurrengo hitza azpimarratuta agertuko zaigu.
- Hitzak asmatu bitartean, jokalariek beren txandari eutsiko diote; hitzen batekin okertuz gero, aldiz, hasierako pantailara itzuliko gara, eta hurrengo jokalarien txanda izango da.
- Jokalari batzuek, jarraian, hitz guztien esanahiak asmatzen dituztenean, orduan irabaziko dute jokia.

# Lexiko berria ikasten

**KORRIKARI BURUZKO LEXIKOA**

Zer esan nahi du...?

**KORRIKARI BURUZKO LEXIKOA**

<b>Lasterketa</b>	MENSAJE; MESSAGE
<b>Arduradun</b>	CARRERA; COURSE
<b>Antolatu</b>	COMITÉ; COMITÉ
<b>Bultzatu</b>	TESTIGO; TEMOIN
<b>Lagundu</b>	RESPONSABLE; RESPONSABLE
<b>Omendu</b>	AYUDAR; AIDER
<b>Lelo</b>	HOMENAJEADO, -A; HONORÉ, -E
<b>Parte hartu</b>	ESLOGAN; SLOGAN
<b>Batzorde</b>	ORGANIZAR; ORGANISER
<b>Lekuko</b>	IMPULSAR; PROMOUVOIR

**KORRIKARI BURUZKO LEXIKOA**

<b>Lasterketa</b>	MENSAJE; MESSAGE
<b>Arduradun</b>	<b>CARRERA; COURSE</b>
<b>Antolatu</b>	COMITÉ; COMITÉ
<b>Bultzatu</b>	TESTIGO; TEMOIN
<b>Lagundu</b>	RESPONSABLE; RESPONSABLE
<b>Omendu</b>	AYUDAR; AIDER
<b>Lelo</b>	HOMENAJEADO, -A; HONORÉ, -E
<b>Parte hartu</b>	ESLOGAN; SLOGAN
<b>Batzorde</b>	ORGANIZAR; ORGANISER
<b>Lekuko</b>	IMPULSAR; PROMOUVOIR

- **Ariketa ONLINE egiteko, bakarka, jo hona: KORRIKA LEXIKOA IKASTEN**

<https://korrika.h5p.com/content/1292128922913403897>

**Harro herri (kanta)**

**Harro herri korrika**  
**Harro herri korrika**  
**Harro herri korrika**  
**Bagara!**

**Harro herri korrika**  
**Harro herri korrika**  
**Harro herri korrika**  
**Plazara!**

Harro herri  
 Hona gu euskaldunak<sup>1</sup>  
 Euskararen lagunak  
 Hats<sup>2</sup> eta izerdi<sup>3</sup>

Herri harro  
 Sarean (e)ta kalean  
 Bihotza<sup>4</sup> pil-pilean  
 Tik-tak, tik-tak, tik-tok

**Mingainaz mingaina<sup>5</sup>**  
**Mintzairaz mintzaira<sup>6</sup>**  
 Lurrarekin batera  
 Jira eta bira<sup>7</sup>

**Ku kukulumuxu<sup>8</sup>**  
**Ko-ko kokoriko<sup>8</sup>**  
 Euskararen sarea  
 Ez da eroriko

**Mingainaz mingaina**  
**Mintzairaz mintzaira**  
 Hizkuntzak hiztunekin<sup>9</sup>  
 Aberasten dira

**Ku kukulumuxu**  
**Ko-ko kokoriko**  
 Algara batean<sup>10</sup>  
 Edo afoniko

**Harro herri korrika...**  
**(errepika)**

Ahoa bizi-bizi  
 Prest belarriak  
 Eskuz esku<sup>11</sup> heldurik  
 Lehertu ezarriak

Argazki bat ipini  
 lasterka egina  
 Bihotz, muxu, irrintzi<sup>12</sup>  
 Nik bai eragina!

**Mingainaz mingaina...**  
**Ku kukulumuxu...**  
**Mingainaz mingaina...**  
**Ku kukulumuxu...**  
**(errepika)**

Onlineko txatean  
 Ez zirri ez mirri<sup>13</sup>  
 gorputzen epelean<sup>14</sup>  
 ikimilikilkirri

Esku bat nirea  
 Bestea zurea  
 Eman bostekoa<sup>15</sup>  
 Izan dadin<sup>16</sup> gurea

Ikasten bazabiltza  
 Egin gurekin  
 Elkar<sup>17</sup> ulertu arte  
 Ekin (e)ta ekin

Hizkuntzak ikastera  
 Bagoaz kanpora  
 Zergatik ez herrian  
 Euskara ahora

**Harro herri korrika...**  
**(errepika, bi aldiz)**

Ez badigute ematen  
 arrazoia guri,  
 Su emango diogu  
 haien legeari

**HIZTEGITXOA:**

- <sup>1</sup> EUSKALDUNAK: euskara dutenak  
<sup>2</sup> HATS: arnasa, hasperen  
<sup>3</sup> IZERDI: gorputzetik botatzen dugun likido usaintsu eta gazia  
<sup>4</sup> BIHOTZA: bularraren azpian duguna  
<sup>5</sup> MINGAINAZ MINGAINA: mingaina batetik bestera  
<sup>6</sup> MINTZAIRAZ MINTZAIRA: hitz egiteko modutik hitz egiteko modura  
<sup>7</sup> JIRA ETA BIRA: bueltaka  
<sup>8</sup> KUKULUMUXU, KOKORIKO (sinonimoak dira): oin puntetan ibili  
<sup>9</sup> HIZTUN: hitz egiten duena  
<sup>10</sup> ALGARA BATEAN: barre handia egiten  
<sup>11</sup> ESKUZ ESKU: esku batetik bestera  
<sup>12</sup> IRRINTZI: euskaldunon oihu ezaguna  
<sup>13</sup> ZIRRI-MIRRI egin: laztandu  
<sup>14</sup> EPELEAN: ez hotz, ez bero  
<sup>15</sup> EMAN BOSTEKOA: eskua eman, agurtzeko edo adostasuna adierazteko  
<sup>16</sup> IZAN DADIN: izateko  
<sup>17</sup> ELKAR: nik zu eta zuk ni

**FITXA TEKNIKOA:**

**Zuzendari artistikoa eta musikaria:** *Mursego* (Maite Arroitauregi Aranburu).

**Letra:** Amaia Astobiza

**Grabazioak:** Oihan Lizaso (Noisestudioa)

**Parte hartu duten talde eta musikariak:**

*Ibon Rg, Ibil Bedi, Kau Kori Kura, Aida Torres, Marié Bidart, Asier Ituarte, Garazi Zabaleta, Urretabizkaia Txaranga*